

**BAZTANGO UDALERAKO HIRU LANGABE ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO DEIALDIA,  
ZERBITZU ANITZAK ETA MENDI LAN ALORRETAKEO PEOI LANPOSTURAKO  
DEIALDIAREN OINARRIAK**

**1.- Deialdia iragartzen da 3 pertsona aldi baterako kontratatzeko 251/2018 EBAZPENari loturik, martxoaren 7koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako toki entitateendako diru-laguntzen kontzesioa arautzen duena langabeak kontrata ditzaten interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko.**

Hiru pertsonen kontratazioa egitea aurreikusten da, sei hilabeteko iraupena izanen duena. Lanpostuak D mailako ordainsaria izanen du eta ondorengo zereginak izango ditu: Zerbitzu anitzetako eginkizunetarako: obrak, igeltserotza, udal eraikin eta azpiegituren mantentze-lanekin erlasionaturikoak.

Bertzelakoak ere eskatzen ahalko zaizkie, espezializazio zehatza ezinbertzekoa ez izan arren, lanbidearen ezagutza edo trebezia eskatzen dutenak: iturgintza-lanak eta elektrizitate obra txikiak, inausketa lanak, hiri-higiezinaren instalazio eta mantentze-lanak.

Mendi lanetarako: mendiko mantentze lanak (desbrozatu....), mendiko azpiegituren mantentzea, Baztango Udaleko, zein Nafarroako Gobernuak basozainen laguntzaile.

Hautapen-prozesua gainditzeko gutxieneko puntuazioa lortzen duen izangairik ez balego, Baztango Udalak, aurreikusitako kontratazioa bete gabe bertan behera uzten ahalko du.

Kontratazioak, 164E/2023 ebazpena, otsailaren 10ekoa, Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emandako "Nafarroako toki erakundeentzako dirulaguntzak, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik" diru partidara baldintzatua egonen da: DDNS identifikazioa: 674089

Hilabete bateko proba-aldia ezarriko da.

**2.- Izangaiek bete beharreko baldintzak**

Izangaiek, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Europar Batasuneko estaturen bateko herritartasuna izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzeko zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartu ahal izanen dute, betiere legez bananduta ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere —betiere legez bananduta ez badaude—, baldin eta hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira, parte hartu ahal izango dute.

b) Hamasei urte beteak izatea eta gehienezko erretiro adina gainditua ez izatea.

c) Langabezian egotea eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuari atxikitako Enplegu Agentziaren batean enplegu eskatzaile gisa izena emanda egotea.

d) Euskara maila ziurtatzea, C1 maila ahozkoan. Maila ziurtatzeko agiririk izan ezean, mailaketa

proba eginen da.

Euskara maila ziurtatzeko agiririk aurkeztu ez dutenek, euskara froga egin beharko dute, frogaren data, izen emateko epea bukatzerakoan zehaztuko da. Froga hau baztergarria izanen da.

e) Eskakerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, Eskolako graduatuaren titulua edukitzea edo eskuratzeko moduan egotea (titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina.)

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

f) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

g) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea.

h) B1 motako gidabaimena edukitzea.

i) 251/2018, martxoaren 7koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendariak emandako ebazpenaren arabera, joan den urtean deialdi berdinarekin diru-laguntzaz Baztango Udalean lanean aritu ez izana.

Espainiako nazionalitatea ez izanik parte hartu nahi dutenek zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, adierazteko ez dutela diziplina-zehapenik edo kondena penalik beren estatuko funtzio publikoan sartzea galarazten dienik.

Probak gainditu eta aldi baterako kontrataziorako deituak diren izangaiek betebeharrak guztiak agiri bidez frogatu beharko dituzte hala eskatzen zaienean, kontratua formalizatu aitzinetik.

Aipaturiko agiriak aurkezten ez dituztenak, behar bezala justifikaturiko indar handiko ezintasun kasuetan izan ezik, ezin izanen dira kontratatu eta haien jarduketa guztiak baliorik gabe geratuko dira, instantziako faltsutasuna dela eta beregana dezaketen erantzukizuna baldintzatu gabe.

Aurreko betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira, baita hautapen prozedurak eta kontratazioak iraun bitartean ere.

### **3.– Eskabideak**

Deialdian parte hartzeko eskabideak I. eranskinen ereduaren arabera bete beharko dira eta Baztango Udaleko bulegoetan (Foru plaza z/g, Elizondo) aurkeztu, 2023ko martxoaren 31ko 14:00ak baino lehen.

### **4.- Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:**

- Mahaiburua: Xabier Maia. Baztango Udaleko zinegotzia.
- Ordezkoa: Joseba Otondo. Baztango Udaleko alkatea.
- Mahaikidea: Maite Mangado Oyanarte. Baztango Udaleko arkitekta teknikoa.
- Ordezkoa: Baztango Udaleko mantentze-lanetako kide bat.
- Mahaikidea: Unai Barazabal. Baztango Udaleko langileen ordezkaria.
- Ordezkoa: Udaleko langileen ordezkari sindikala.
- Idazkaria: Baztango Udaleko idazkaria.

Hautaprobak hasi baino lehen eratu da epaimahaia.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa gutxienez bildu gabe.

Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdi hauen oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen gorabehera guztiak

Epaimahaiak aholkulari espezialistak hartzen ahalko ditu probarako, eta horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan bakarrik emanen diete laguntza epaimahaikoei.

## **5.- Hautaprobaren garapena eta balorazioa**

Hautapen prozesua apirilaren 17-21eko astean zehar hasiko da.

Probak egiteko datak aldeztatik jakinaraziko dira Baztango Udaleko iragarki oholean eta web gunean gutxienez 48 ordu lehenago.

Epaimahaiak, antolaketa hala eskatuko balu, izangaiekin hainbat talde egiteko aukera izanen du, beti ere, aurreko epigrafean zehazten diren komunikabideen bidez behar bezala jakinaraziz gero. Izangaiek Nortasun Agiria aurkeztu beharko dute proba guztietan.

## **6.- Lehiaketa-aldiaren Balorazioa (30 puntu)**

Oinarri hauetan jasotakoaren arabera merituen dituzten izangaiek, eskabidearekin batera egiaztatu behar dituzte.

Epai-mahaiak kontratazioarako gai diren izangaiekin merituen egiaztatuak baizik ez ditu baloratuko, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.

Emandako gehienezko puntuazioa 30 puntukoa izanen da, ondorengo baremoari jarraituz

### **1. MERITU AKADEMIKOAK (Gehienez ere, 6 puntu):**

Lanbide Heziketako (LH) Tituluak edota Lanbide Gaitasunaren Ziurtagiriak (LGZ) ondorengo lanbide arloetan izateagatik: Elektrizitatea eta Elektronika, Energia eta Ura, Eraikuntza eta Obra Zibila, Fabrikazio Mekanikoa, Instalazioa eta Mantentzea, Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoak, Nekazaritza, eta Ingurumena.

- Lanbide Heziketako Oinarrizko Heziketa Zikloko Oinarrizko Lanbide Titulua:  
2,00 puntu.
- Lanbide Heziketako Erdi Mailako Zikloko Teknikari Titulua:  
4,00 puntu.
- Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloko Goi-mailako Teknikari Titulua:  
5,00 puntu.
- 1. Mailako Lanbide Gaitasun Ziurtagiria:  
0,50 puntu.
- 2. Mailako Lanbide Gaitasun Ziurtagiria:  
1,00 puntu.
- 3. Mailako Lanbide Gaitasun Ziurtagiria:

1,50 puntu.

## 2. FORMAKUNTZA OSAGARRIA (Gehienez ere, 4 puntu)

Prestakuntzarako eta hobekuntzarako ikastaroak edota Lanbide Heziketa Zikloko Titulazioekin Lanbide Gaitasun Ziurtagiriek zerikusia duten ikasketa moduluak gainditu izan diren ziurtagiriak

Proporzionalki baloratuko da: 40 orduko prestakuntzagatik 0,1 puntu emango dira

Legionellaren aurka, arrisku-instalazioen mantentze higieniko-sanitarioa egiten dituzten langileak prestatzeko ikastaroa izateagatik: 1,00 puntu.

Egiaztariak: izangaiek aurkeztutako merituei dagozkien titulu edota agirien fotokopia konpulsatuak, organo eskudunak emanak.

## 3. LAN ESPERIENTZIA (Gehienez ere, 20 puntu)

Deialdiaren xedearen antzeko lanpostuetan lanaldi osoan izandako esperientzia-urte bakoitzeko:

10 puntu.

Egiaztatutako esperientzia baloratzean, urte edo lanaldi osoa egiten ez duen aldiari proportzioan dagokiona emanen zaio.

Bizi laborala eta Enpresa ziurtagiriak edo lan kontratuak aurkeztu beharko dira.

### **7.- Proba-aldia**

Oposizioko proba bakoitzerako dei bakarra egingen da, eta izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, pasaportearen edo gidabaimena eraman beharko dute. Oposiziotik baztertuak izanen dira iragarritako egunetan, orduetan eta tokietan agertzen ez diren izangaiek eta aipatu diren agirien bidez identifikatzen ez direnak.

Oposizio-aldian ondorengo proba egin beharko dute.

PROBA: Proba praktikoa. Gehienez ere 70 puntu eskuratzen ahal dira.

Lanpostuan egin beharreko lanei loturiko ariketa praktikokoak egin beharko dituzte (lorenzaintza, iturgintza, igeltserotza, elektrizitatea...). Probaren iraupena hau egiterakoan zehaztuko da.

Proba gainditutako izangairik ez balego edo izangaiek, behar bezala egiaztatuz, Administrazio deitzailearen bidez kontratatua izateari uko egingen balio, honek, izangai bat kontratatzen ahalko du, hautaketa prozesuan eskuratutako puntuazio-ordenaren arabera, gehien lortu duena.

### **8. Gaitutako pertsonen zerrenda eta deialdia**

Proben kalifikazioa bukatuta, Epaimahaiak Baztango Udalaren Iragarri-oholean eta web gunean argitaratuko ditu gaitutako pertsonen zerrenda.

Udalak proba guztiak gaitutako izangaiek kontratazioarako deituko ditu eskuratutako puntuazio-ordenaren arabera, puntuazio handiena lortu duena kontratatuko delarik.

Kontratuduna Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartu eta bertan kidetuko da; beraz, haren kontu izanen da dagokion kuota eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipena, bidezko diren kopuruetan.


Probak gainditu dutenen artean, lan poltsa osatuko da, Udalaren beharren arabera erabili ahal izateko.

## **9.– Helegiteak.**

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtsio hauetakoren bat aurkezten ahalko da:

- a) Berraztertzeke helegitea, egintzaren organo egile beraren aurrean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.
- b) Administrazioarekiko auzi helegitea Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean egintza edo errekurritutako akordioa jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.
- c) Gora jotzeko helegitea Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean egintza edo errekurritutako akordioa jakinarazi edo argitaratu eta hilabeteko epearen barnean.

Epaimahai Kalifikatzailearen egintzaren aurka gora jotzeko helegitea aurkeztu ahalko da deialdia egiten duen udal organoaren aurrean, egintza edo errekurritutako akordioa jakinarazi edo argitaratu eta hilabeteko epearen barnean.



Eskatzailea: \_\_\_\_\_

NAN: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

**BAZTANGO UDALERAKO HIRU LANGABE ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO DEIALDIA, ZERBITZU ANITZAK ETA MENDI LAN ALORRETA KO PEOI LANPOSTURAKO, KONTRATAZIORAKO HAUTATZE PROZESUAN PARTE HARTZEKO ASMOZ**

**ADIERAZTEN DUT:**

Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisikorik nahiz psikikorik.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

Ez naizela diziplina espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan, ez eta diziplinako kaleratze bidez bidalia ere, eta ez nagoela desgaituta eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen den titulazioaren jabe naizela.

Eskaerak aurkezteko epearen azken egunean eskakizun guztiak betetzen ditudala (espresuki langabezian egotea eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eskatzaile gisa izena emanda egotea).

**ESKATZEN DUT:**

Onartua izatea pertsona langabetuak kontratatzeke deialdian.

**HONAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEN DUT:**

**NANaren fotokopia**  
**B MAILAKO GIDA BAIMENA**

**CURRICULUM VITAE**  
**TITULU ETA ZIURTAGIRI AKADEMIKOAK**  
**BIZI LABORALAREN TXOSTENA, KONTRATUAK, ENPRESA ZIURTAGIRIAK, E.A.**

**EUSKARA EZAGUTZA**

**TITULAZIO ZIURTAGIARIAREN KOPIA (EGA, C1 EDO BALIOKIDEA)**

PROBA EGITEA ESKATZEN DUT. Euskara proba egiteko eguna eta ordua onartuen eta baztertuen behin-behineko -zerrenda argitaratzearekin batera

jakinaraziko da

**BESTE HAUTZE PROZESU BATERAKO BAZTANGO UDALEAN EGINDAKO**  
euskara proba (maila berekoa) gainditua dut 2018 eta 2022 urteen artean.

Baztanen, 2023ko martxoaren .....(e)an  
(Sinadura)